

Gure proiektua bereziki haurren familiei zuzendua eta egokituta dago. Izan ere, inguruan haurren tutore anitz ditugu egungo gai zein egoera desberdinen aurrean, ezjakintasun, kezka eta nola jokatu ez dakitenak. Honen aurrean, familia hauek ez dakite nora edota norengana joan laguntza eske, hau da, ezjakintasun zein kezka horiek argitu ahal izateko ez dakite non topatu laguntza. Gure elkarteak sortzearekin batera helburu bat dugu, familia hauen kezka, ezjakintasun zein buruhausteei irtenbidea emanez. Beraz, familia hauei laguntzeko gure elkarteak beharrezkoa eta funtsezkoa da eta baliagarria haurren tutoreek haurrei heziketa on bat eman ahal izateko.

Zergatik gure elkarteak?

Familia elkarte bat sortuko dugu kezka eta egun pirpilean eta zuzenki haurrei zeharkatzen dizkieten jokaera, oztopo zein zalantza horiei buruzko formakuntzak eskeiniz familiei. Esate baterako, haurren elikaduraren inguruan kezka handia dago obesitatea dela eta. Bestalde, etorkizun batean, haurrak osasuntsu hazteari garrantzi berezia emango diogu, gizarte inklusibo batean hezteak eta zorientsu izatea. Horretarako, gure hitzaldien bitartez familiak prestatuko ditugu hainbat tailer eginez.

Esaterako, lehen saioan pantailek haurrengan dituzten eraginez hitz egingo dugu. Beste saio batzuk ere pentsatuak ditugu, adibidez, familia nutrizioa eta elikadura, imigrazioa... Argi dugu, gure jarduna haurrei eta familiei inguratzen dizkieten oztopo horiei irtenbide edota heziketa hobea baten bila jardungo dugula. Betiere, gizarteak, eta beraz, gure ingurua aldatzen doan heinean, gu ere formatzen, eguneratzen eta elkarteko familien interesei begirako jardunean oinarrituko garela.

Azpitarratzekoa da, gure elkarteak baduela balio erantsi berezi, deigarri eta eksklusibo bat. Gure formakuntzak ez dira guk sortuak eta familiek guri entzun beharrekoak izango. Gure formakuntzetan, informazioa elaraziko dugu bai, baina horrez haratago estrategiak eman, ariketak egin elkarteko denon parte hartzearekin, arazo konkretuei irtenbideak eman eta zalantza eta arazo hori soluzioa topatu zein praktikan jarri.

Elkarte, hau lau hezitzailek sortu dugu beraz, gugandik sortutako proiektua izanik badakigu elkarrekin nola lan egin, bakoitzaren alde positiboak eta hobetu beharrekoak ezagutzen ditugu, gatazkak kudeatzeko estrategiak ezagutzen ditugu... Gainera, gogotsu eta indartsu gaude, eta elkartean sinisten dugu.

Aurreko guztia laburbilduz, orokorki gure elkartean balioa sustatzen da heziketa duin bat izateko, elkar errespetatzeko; eta batez ere, haurrek merezi duten heziketa izateko, eta horrela etorkizunean gai izateko haien trebetasunen bitartez beraien bizitza aurrera eraman dezaten.